

Gobernu Programaren betetze-mailaren balantzea

2018ko ekitaldia

AURKEZPENA

LABURPENA

1. Sintesia.
2. 2018ko 25 mugarri nagusi.

I. ATALA.- GOBERNU PROGRAMAREN KUDEAKETA

- 1. GOBERNU PROGRAMA**
 1. Legegintzaldiko bigarren urtea.
 2. Gobernu Programa Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta Europa 2020 Estrategiarekin lerrokatzea.
- 2. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA ETA SAILETAKO PLANGINTZA**
 1. Plan estrategikoak: 2018ko helburua eta betetze-maila.
 2. Saisetako planak: 2018ko helburua eta betetze-maila.
 3. Ondorioak.
- 3. LEGEGINTZA PROGRAMA**
 1. 2018ko helburua eta betetze-maila.
 2. Ondorioak.
- 4. PROGRAMA OPERATIBOA**
 1. 2018ko helburua eta betetze-maila.
 2. Gardentasuna. Irekia ataria.
 3. Ondorioak.
- 5. URTEKO ARAUGINTZA PLANA**
- 6. EKINTZA GARRANTZITSUENAK**
- 7. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAK**

II. ATALA.- EMAITZAK

- 8. 15 HERRI HELBURUAK**
- 9. ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU PROGRAMA**
- 10. GOBERNU KUDEAKETAREN ADIERAZLEEN AGINTE TAULA**

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Legegintza Egutegiaren egoera
2. ERANSKINA: Plangintza Estrategikoaren egoera
3. ERANSKINA: Indarrean dauden Saisetako planak eta 2019an onar daitezkeenak
4. ERANSKINA: 2018ko ekitaldiko jarduketa nagusiak
5. ERANSKINA: 2018ko dirulaguntzen plan estrategikoak: Laguntza-lerro nagusiak
6. ERANSKINA: 2018rako Urteko Araugintza Plana: Jaurlaritzak ekitaldian onartu dituen dekretuak

GEHIGARRIA

Saisetako 2018. urteko jarduketa garrantzitsuenak, sailen arabera multzokatuta*.


(*) Aparteko dokumentuan

Aurkezpena

Txosten honek 2018ko ekitaldiko gobernu-ekintzaren jarraipenari buruzko informazioa dakar. Helburua da Gobernu Programa bitarte horretan noraino bete den zehaztea, eta gobernu honen konpromisoa betetzea, izan ere konpromisoa hartu baitu programaren betetze-maila ebaluatzeko, emaitzetara bideratutako ekintza garatzeko asmoarekin.

Txostenaren behin betiko bertsioa Gobernu Kontseiluaren 2019ko urtarrilaren 29ko bileran aurkeztekoa da. Txosten hau gobernu-ekintzaren jarraipena egiteko prozeduraren barruan egin da. Jarraipen hori urteko bi unetan gauzatzen da: ekainaren 30a arte egindako jarduketak uztailan aztertzen dira; eta hurrengo urteko urtarrilean urteko balantzea egiten da, abenduaren 31 arte egindako jarduketak aztertuta.

Laburpena



1. Sintesia

1

Jaurlaritzak Nazio Batuen 2030 Agendarekin lerrokatu du bere programa eta 2018ko apirilaren 10ean **Euskadi-Basque Country 2030 Agenda** onartu du.

Halaber, ekarpena egin dio Europako etorkizunari buruzko Liburu Zuriari, martxoaren 9an onartutako dokumentu honen bidez: **“Europaren etorkizunaren inguruko ikuspegia”** (10. or.)

4

2018. urtean onartu dira Euskadi-Basque Country Estrategia eta Berdintasunerako VII. Plana; eta, alhora uzten baditugu Lanbide Heziketako V. Plana 2018-2021 eta IV. Unibertsitate Plana 2019-2022 (berehala onartzekoak), helburua lortu da: konprometitutako **Plangintza Estrategiko** osoa (15 plan) indarrean egotea legegintzaldiaren amaierara arte. (12. or.)

3

Legegintza Programaren exekuzioak aurrera jarraitu du 2018an. Orain arte, legegintzaldirako agindu ziren 28 legeetatik 14 Gobernu Kontseiluan onartuta daude. (13. or.)

2

2018ko apirilerako **Gobernu Programa Operatiboaren**

ehuneko ehunek (hau da, programa horretako 175 konpromisoek eta 655 ekimenek) inplementazio-ekintzak edukitzea lortu da. Legegintzaldia hasi zenetik, guztira 5.734 ekintza izan dira; denak argitara eman dira Irekia gardentasun-atarian. (15. or.)

5

Sailetako 58 planetatik 49 daude indarrean (hau da, % 85).

Nahiz eta ekitaldian zehar 18 plan onartu diren, oraindik ere ahalegin garrantzitsua egin behar da 2019ko ekitaldian zehar burutu beharreko sailetako plangintzan, legegintzaldiko plangintza osatzeko (11. or.)

6

Jaurlaritzaren eta sailen ekintza, 2018ko ekitaldian zehar, kuantitatiboki bakarrik ez, kualitatiboki ere nabarmena izan da. Horrelaxe erakusten du ekitaldi horretan zehar burututako **jarduketa garrantzitsuenen** neurriak. (47. or.)

7

Jaurlaritzak, sailetako

Dirulaguntzen Plan

Estrategikoen bitartez, 1.621 milioi euro konprometitu ditu. Kopuru horretatik 922 milioi 1. ardatzari (Suspertzea) dagozkio, 647 milioi 2. ardatzari (Kohesioa), eta beste 52 milioi 3. ardatzari (Giza eskubideak). (18. or.)

8

Urteko Araugintza Planak

duen betetze-maila hobetu egin daiteke (% 41). Sailek euren aurreikuspenak haztatu beharko lituzkete 2019rako Urteko Araugintza Plana prestatzen denerako (16. or.)

9

15 herri-helburu

ezarri ziren legegintzarako; 10 lortu dira dagoeneko, eta beste bostek zailtasun-maila handiagoa dute. 2018. urtean, helburu horiei lotuta dauden adierazle guztiek, jaiotza-tasak eta pobrezia ekonomikoaren tasak izan ezik, joera positiboak agertu dituzte (21. or.)

10

Suspertze Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programak,

bere indarraldiko lehen biurtekoan, inpaktuari buruzko hasierako aurreikuspenak gainditu ditu bai enpleguaren ardatzean bai suspertze ekonomikoarenean. Programa guztiek adierazleetan dituzten emaitzak positiboak dira. Emaitza horiek, exekuzio-aldiaren erdian, indarraldi osorako aurreikusitakoen % 60 gainditzen dute (39. or.)

11

Izaera sozial nabarmena duten bi neurri jarri dira abian. Urrian, Euskadiko [Eremu Ahuletarako Talka Plana](#) jarri da abian, 18 jarduketa eta 64,1 milioi euroko inbertsio berezia biltzen dituena 2018-2019 aldirako; eta azaroan, berriz, [Soldata-arrakala txikitzeko Estrategia eta Plan Operatiboa](#), zeinek, 20 jarraibide nagusi oinarri hartuta, aldi berean, 282,4 milioi euroko inbertsioa aurreikusten duen (46. or.)

12

Bi dekretu onartu dira transferentzien arloan:

- 174/2018 Dekretua, abenduaren 3koa, errepideen alorrean irailaren 26ko 2769/1980 EDaren bidez EAERI eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruz Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak egindako akordioa onartzen duena, eta
- 178/2018 Dekretua, abenduaren 11koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak Basurtuko Ospitalea - Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez egindako akordioa, Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa. (17. or.)

2. 2018ko 25 mugarri nagusi

25 MUGARRI GARRANTZITSUENAK 2018KO GOBERNU EKINTZAN

Urtarrila	<u>Familien eta haurren aldeko erakundearteko ituna. Seme-alabak dituzten familientzako dirulaquntzen deialdia.</u> (34,5 M €) (2018-01-18)
Otsaila	<u>Hezkuntzaren aldeko Akordioaren Oinarriak</u> onartu ziren (2018-02-05)
Otsaila	Euskal Enplegu Publikoaren Legearen aurreproiektua onartu zen, eta bertan jaso zen <u>gurasotasun-baimenak</u> parekatzea, 16 astera arte, bikotea osatzen duten bi pertsonentzat (2018-02-16)
Otsaila	Ekonomia Itunaren 140. urteurrena ospatu zen. Lehendakariak itunaren aldeko adierazpena egin zuen, eta aho batez atxikimendua agertu zioten alderdiek, erakundeek eta gizartearen ordezkariak (2018-02-28)
Martxoa Maiatza	<u>Espainiako Gobernuarekiko akordioak, AHTa EAEko hiru hiriburuetan sartzeko:AHTaren Abandoko geltoki</u> berria (2018-03-08), Donostiako geltoki berria , trenbidea autobus-geltokiarekin eta Tabakalera-Egiarekin integratuko duena Norteko geltokian (2018-05-14), eta lurpeko sarbidea 3,6 kilometroko tartean, Gasteizen (2018-05-28)
Martxoa	Lehendakariak eta EAEko alderdi politiko guztien ordezkariak batera ospatu zuten <u>Terrorismoaren biktimen Europako Eguna</u> , <i>Bidegabea izan zen</i> leloaren pean (2018-03-11)
Apirila	Jaurlaritzak <u>2030 Euskadi Basque Country Estrategia</u> onartu zuen (2018-04-11)
Apirila	Onartu eta Legebiltzarrerara igorri zen <u>Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen</u> aldaketaren proposamena (2018-04-17 eta 2018-04-27)
Apirila	<u>Bizkaiko Parke Teknologikoaren Ezkerraldeko gune berriaren</u> aurkezpena (2018-04-20)
Maiatza	<u>ETAren desegitea, eta Bertizko adierazpena, EAEko eta Nafarroako lehendakariena, bakearen eta bizikidetzaren alde</u> (2018-05-03)
Ekaina	Euskadiko lehen <u>Bonu Jasangarrien</u> jaulkipena, 500 milioi €-koa (2018/06/05)
Ekaina	<u>Biocruces Bizkaia</u> Institutua inauguratu zen osasun-arloko ikerketaren erreferentzia-zentro gisa (2018-06-06)
Uztaila	Jaurlaritzaren <u>finantza-politika berria</u> onartu, eta abian jarri zen 125 milioi euroko funts publiko-pribatu berri bat, 250 milioi euroraino handitu daitekeena. Garapenerako kapitaleko SOCADE sozietatearen funtsak indartu egin ziren (100 milioi euro legegintzaldirako), EAEko enpresa handietan parte hartzeko eta errazago sustraitzeko (2018-07-16)
Uztaila	Lehenengo <u>Euskadiko Zibersegurtasun Zentroa</u> inauguratu zen Miñaoko Parke Teknologikoan (2018-07-18)
Urria	Onartu zen <u>Haurreskolak partzuergoaren zerbitzua doakoa izatea</u> urtean 18.000 eurotik beherako errentak dituzten familientzat eta haur-eskolan lehenengoarekin batera matrikulatutako bigarren eta hurrengo neba-arrebentzat (2018-10-18)
Urria	<u>Eibarko Ospitale</u> berria inauguratu zen (2018-10-22)
Urria	Euskadiko <u>eremu ahuletarako Talka Plana</u> onartu zen; 18 jarduketa eta 64,1 milioi euroko inbertsio berezia biltzen ditu 2018-2019 aldirako (2018-10-31)
Azaroa	Jaurlaritzak euskararen aldeko <u>Euskaraldia</u> ekimen soziala bultzatu zuen eta modu aktiboan parte hartu zuen (2018-11-23)
Azaroa	<u>Euskadin soldata-arrakala txikitzeko Estrategia eta Plan Operatiboa</u> onartu ziren (2018-11-27)

Abendua	<u>Bilboko Arte Ederren Museoa</u> handitzeko Plan Estrategikoaren aurkezpena (2018-11-8)
Abendua	Bi eskumen gehiago transferitu ziren: Basurtuko Ospitalea - Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo <u>trenbideen</u> gainekoak (2018-12-11) eta AP-1eko (Armiñón-Burgos) tartearren gainekoak <u>errepideen</u> arloan (2018-12-03)
Abendua	2019an zehar gauzatuko diren 4.400 plazaren lan-eskaintza publikoa onartzeko erabakia. EAEko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak (337 plaza). EAEko Hezkuntza Administrazioa (2.000tik gora plaza). Ertzaintza (500 plaza). Osakidetza (1.083 plaza). EAEko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak (74 plaza) (2018-12-18)
Abendua	Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Institutuak (EIT) erabaki du Euskadi <u>Fabrikazio Aurreratuko Europako Partzuergoko</u> (EIT Manufacturing) nodoetako bat izatea. Nazioarteko Partzuergoak hainbat herrialdetako 50 agente biltzen ditu, eta horien artean daude Teknalia, IK4, Aernova, Mondragon Taldea eta ITP. (2018/12/10)
Abendua	<u>Gaztelagun programa:</u> etxebizitzaren alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzen bitartez gazteen emantzipazioa errazteko asmoz onartu da programa hori. 2019ko urtarrilean hasiko da aplikatzen.
Abendua	<u>Onkologikoa</u> Osakidetzan integratzea onartzea. Finantziazioa bermatuko deneko erabakiak, 27.000 gaixoren arreta hobetuko du eta 2019ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. (2018/12/18)

I. atala

Gobernu Programaren kudeaketa

1. Gobernu Programa
2. Plangintza estrategikoa eta sailetako plangintza
3. Legegintza Programa
4. Programa Operatiboa
5. Urteko Araugintza Plana
6. Ekintza garrantzitsuenak
7. Dirulaguntzen Plan Estrategikoak

1. GOBERNU PROGRAMA

1.1. LEGEGINTZALDIKO BIGARREN URTEA.

Legegintzaldia 2017. urtean hasi zen eta urte hartan finkatu ziren Jaurlaritzaren jardunaren oinarriak. Horretarako, 2017-2020 aldirako 15 herri-helburuak zehaztu ziren, eta Gobernu Programa, Plangintza Estrategikoa eta Legegintza Programa onartu.

Gobernu Programan agindutako ekintzen % 100 martxan izatea lortu da 2018ko ekitaldian; Jaurlaritzaren 15 plan estrategikoetatik 13 daude indarrean, gutxienez, 2020ra arte; eta Legegintza Programan agindutako 28 legeetatik 14 ari dira izapidetzen Legebiltzarrean.

Gainera, ekitaldi horretan Jaurlaritzak bere politiken eta jarduketan emaitzen bigarren ebaluazioari aurre egin dio. Beraz, 15 herri-helburuak zenbateraino bete diren aztertzeko eta XI. legegintzaldiko Gobernu Programako Aginte Taulan sartu ziren adierazleen jarraipena egiteko garaia izan da.

1.2. GOBERNU PROGRAMA NAZIO BATUEN 2030 AGENDAREKIN ETA EB-REN 2020 ESTRATEGIAREKIN LERROKATZEA

Gobernu Programa Nazio Batuen 2030 Agendarekin eta Europa 2020 Estrategiarekin lerrokatzea, legegintzaldiaren hasieran, Gobernu Programaren indarguneetako bat zela pentsatu zen, **koherentzia** ezarri zelako Jaurlaritzak bere programan definitutako **politika publikoen** eta Europako estrategiaren nahiz garapen jasangarrirako estrategia globalaren artean.

Ekitaldiaren hasiera aldean Gobernu Kontseiluak, 2018ko apirilaren 10eko bileran, “**Euskadi-Basque Country 2030 Agenda**” onartu du. Agiri horrek erakusten du norainoko ekarpena egiten duten Gobernu Programak eta hura garatzen duten politika sektorialekin Nazio Batuen 2030 Agendako 17 GJHei (garapen jasangarrirako helburuei) lotutako xede eta helmugetara iristeko.

Horrez gainera, “**Bonu Jasangarria**” jaulki da ekainean, bai eta arrakasta nabarmena lortu ere. Ogasun eta Ekonomia Sailak merkaturatu du (guztira 500 milioi euro), eta helburua izan da 2030 Agenda garatzeko programak eta 17 GJHen lorpena finantzatzea.

Europar Batasuna dela eta, Jaurlaritzak “**Europaren etorkizunari buruzko ikuspegia**” izeneko dokumentua aurkeztu du martxoaren 9an, bere ekarpena eginez Europako Batzordeko presidente Jean Claude Juncker-ek 2017ko martxoan Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuriarekin hasi zuen hausnarketari.

2. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA ETA SAILETAKO PLANGINTZA

2.1. PLAN ESTRATEGIKOAK: 2018KO HELBURUA ETA BETETZE MAILA

Jaurlaritzaren Plangintza Estrategikoa 15 plan estrategikoz osatuta dago (**2. eranskina**)

Jaurlaritzak ezarritako helburua lortu zen 2017an, alegia, 15 planak indarrean egotea lortu zen. 2018an indarraldia amaitu zaie bi plan estrategikori (Berdintasunarenari eta Lanbide Heziketarenari). Beraz, urte hasieran helburua izan da biak onartzea ekitaldian zehar.

Urtarrilaren 26an onartu zen Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020, Euskadi Basque Country delakoa, eta ekainaren 19an onartu zen Berdintasunerako VII. Plana. Lanbide Heziketako V. Planaren izapideak laster amaituko dira, eta aurreikusita dago hura 2019ko ekitaldiaren hasieran onartzea.

Lanbide Heziketako V. Plana onartzen denean, Jaurlaritzaren plan estrategiko guztiek, Unibertsitate Sistemaren IV. Planak (2019-2022) izan ezik, indarraldia luzatuta edukiko dute 2020ra arte, gutxienez. Hau da, legegintzaldia amaitu arte. Egungo Unibertsitate Sistemaren Planaren indarraldia 2019an amaituko denez, aurreikusita dago plan berriaren onarpena 2019. urteko lehenengo hiruhilekoan izatea.

2.2. SAILETAKO PLANAK: 2018KO HELBURUA ETA BETETZE MAILA

XI. legegintzaldiko sailtako plangintza **58 planen** hasierako zerrendak osatzen du. Plan horiek Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 21ean egin zuen bileran zehaztu ziren.

Abenduaren 31n, hauxe da egoera: aurreikusitako sailtako 58 planetatik 49 daude indarrean.

Horrenbestez, Jaurlaritzak bere sailtako plangintzaren % 85 dauka indarrean legegintzaldiko bigarren urtean.

Zortzi plan bakarrik falta dira onartzeko, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek berriazko prozedura dutela eta. 2019ko ekitaldian Jaurlaritzaren asmoa betetzeko, beharrezkoa izango da plangintzan azken ahalegina egitea aurreikuspen horrek gehien eragiten dien sailtan.

3. eranskinean zehaztasunez azalduta daude 2018an indarrean dauden planak eta onartzeko daudenak.

2.3. ONDORIOAK

1

2018rako helburua izan da Jaurlaritzaren Plangintza Estrategikoa osatzen duten 15 planak indarrean egotea. Euskadi Basque Country Estrategia onartu da, Berdintasunerako VII. Plana ere bai, eta Lanbide Heziketako V. Plana onartzekoa da; Unibertsitate Sistemaren Plana (2019-2022) onartzea baino ez da falta, eta hori 2019ko lehenengo hiruhilekorako programatuta dago, luzeen jota. Horrenbestez, Jaurlaritzak bere plangintza estrategiko osoa edukiko du indarrean legegintzaldiaren amaierara arte.

2

Sailetako plangintza prestatzeko lanak abiadura egokian gauzatzen ari dira. Aurreikusita zeuden sailetako 58 planetatik 49 indarrean daude (sailetako plangintzaren % 85), eta 2018. urtean plan horietako 18 onartu dira.

3

Jaurlaritzaren asmoa da sailetako plangintzaren zati ahalik eta handiena indarrean edukitzea legegintzaldiko une honetarako, eta horrek azken ahalegin bat eskatuko die ukitutako sailei 2019. urtean.

3. LEGEGINTZA PROGRAMA

3.1. 2018ko helburua eta betetze-maila

Jaurlaritzaren Legegintza Programa 28 lege-proiektuk osatzen dute. Proiektuen zerrenda eta Jaurlaritzak haiek onartzeko egutegiak **1. eranskinean** jaso dira.

Legegintzaren arloan, honako hau da 2018. urteko balantzea: 2018rako agindutako 18 proiektuetatik, 11 lege-proiektu Gobernu Kontseiluan onartu eta Legebiltzarrera igorri dira; 6 aurreproiektu izapidetzen ari dira, eta beste bat izapidetzeko dago. Beheko taulan ageri da 2018. urteko lege-proiektuen balantzea.

Jarraian, 2018an konprometitutako lege-proiektuen balantzearekin taula bat jasotzen da.

2018an aurreikusitako lege-proiektuak		
Lege-proiektua	Saila	Izapideen egoera
Kultu Aretoak	Lehendakaritza	Izapidetzen
Gardentasuna, Herritarren Partaidetza eta Gobernu Ona	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	G. K. 2017/09/19 Izapidetzen
Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoa	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	G. K. 2017/06/27 Izapidetzen
Ekarpenak, 2017–2021 bitartean	Ogasuna eta Ekonomia	Hasi gabe
Euskal Estatistika Plana	Ogasuna eta Ekonomia	G. K. 2018/11/27 Izapidetzen
Lanbide Heziketa	Hezkuntza	G. K. 2017/05/30 Ekainaren 28ko 4/2018 Legea onartuta
Euskal Enplegu Publikoa	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Izapidetzen
Euskal Sektore Publikoaren Antolam. eta Funtzionamendua	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	G. K. 2017/10/03 Izapidetzen
Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legea aldatzea	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Izapidetzen
Administrazio Publikoen Zehatze-ahalaren Legea aldatzea	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	G. K. 2018/11/27 Izapidetzen
dirulaguntzen Araubidea erregulatzekoa	Ogasuna eta Ekonomia	Izapidetzen
Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzea	Kultura eta Hizkuntza Politika	G. K. 2017/07/04 Ekainaren 7ko 1/2018 Legea onartuta
Poliziarri buruzko Legea aldatzea	Segurtasuna	G. K. 2018/06/26 Izapidetzen
Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea aldatzea	Enplegua eta Gizarte Politikak	G. K. 2108/04/17 Izapidetzen
Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerraraztekoa	Lehendakaritza	Izapidetzen
Mugikortasun Jasangarria	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Izapidetzen
Kirol Lanbideetan Sartzea eta Jardutea	Kultura eta Hizkuntza Politika	G. K. 2017/11/07 Izapidetzen
Kooperatibak	Lana eta Justizia	G. K. 2018/12/18 Izapidetzen

Horretaz gainera, hasiera batean Legegintza Programan sartuta egon ez diren arren, hiru lege-aurreproiekturen izapidetze administratiboari ekin zaio, eta horietako bat Gobernu Kontseiluan onartu da. Hona xehetasunak:

Legegintza Programan sartuta egon gabe 2018an izapidetu diren legeak	
Lege-proiektua	Izapideen egoera
Gazteriaren Euskal Legea	Izapidetzen
EAEko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeko Legea aldatzea	Izapidetzen
Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 3. aldaketa	G. K. 2018/06/12

3.2. ONDORIOAK

1

2018rako agindutako 18 lege-proiektuetatik 11 onartu dira. Gainera, izapidetze administratiboaren fasean daude beste sei, eta horietako bat, Ekarpenen Legearen proiektua, izapidea hasteko zain dago.

2

Gainera, Legegintza Programan sartu gabeko hiru legeren izapidetze administratiboa hasi da 2018an, eta, horien artetik, Errepideen Legearen proiektua onartu da.

4. PROGRAMA OPERATIBOA

4.1. 2018KO HELBURUA ETA BETETZE MAILA

Jaurlaritzaren Programa Operatiboan **175 konpromiso** eta **655 ekimen** ezarri ziren.

Hauxe zen 2018rako **helburua**: urteko lehenengo sei hilekoan 175 konpromisoen eta 655 ekimenen % 100ek edukitzea sailletako jarduketak euren exekuziorako.

Helburu hori martxoan bete zen, eta Jaurlaritza horren jakitun geratu zen martxoaren 27ko bileran.

Ondorioztatu behar da, beraz, Jaurlaritzak ezarritako helburua bete egin dela. Gobernu Programako konpromisoen garapen-maila izugarri altua izan da XI. legegintzaldi honetako lehenengo bi urteetan.

Gobernu Programan jaso ziren konpromisoak eta ekimenak gauzatzeko, sailek 2018 ekitaldian zehar 3.602 jarduketa baino gehiago garatu eta Irekia Gardentasun Atarian argitaratu dituzte, eta horietatik esanguratsuenak jaso dira txosten honen gehigarrian.

4.2. GARDENTASUNA: IREKIA ATARIA

Programa Operatiboari buruz, eta 7. herri-helburua ("*Gardentasunaren nazioarteko indizeetan lider izatea*") betetze aldera, ezinbestekoa da sailletako jarduketak Irekia atarian argitaratzea, horretarako garatu den aplikazioa erabiliz.

Legegintzaldiaren hasieratik sailek 5.734 jarduketa argitaratu dituzte atari horretan (2017ko ekitaldiko 2.132 jarduketa eta 2018ko ekitaldiko 3.602 jarduketa).

Beraz, Gobernu Programa gardentasunez gauzatzeko konpromisoa egokiro betetzen ari da.

4.3. ONDORIOAK

1

Gobernuak lortu du bere helburua: legegintzaldiaren lehenengo zatian martxan jartzea Gobernu Programako 175 konpromisoen eta 655 ekimenen % 100. Lortu ere 2018ko lehenengo hiru hilekoan lortu du.

2

Jarduketa hori gardentasunez garatzen ari da. Izan ere, sailek Irekia gardentasun-atarian argitaratzen dituzte horrelako jarduketak, eta bertan, legegintzaldia hasi zenetik, 5.734 jarduketa argitaratu dira (2017ko 2.132 jarduketa eta 2018ko 3.602 jarduketa).

5. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

Gobernu Kontseiluaren 2018ko otsailaren 12ko bileran erabaki zen 2018rako Urteko Araugintza Plana argitaratzea.

Plan hori osatzen dute sail bakoitzean onartzen diren urteko araugintza-planek. Bertan biltzen dira sail bakoitzean 2018an onartu nahi diren, eta plan horren objektu diren, lege-proiektuak eta dekretu-mailako xedapen orokorrak.

Dekretuei dagokienez, 105 dekretuk osatzen dute plana (dekretu horien zerrenda ageri da <http://www.euskadi.eus/planes-anuales-normativos/web01-s1leheko/es/> webgunean). 2018ko abenduaren 31n honako hau zen bere betetze-maila:

URTEKO ARAUGINTZA PLANA 2018				
Saila	Proiektuen kop.	Onartuta	Izapidetzen	Hasi gabe
Lehendakaritza	6	3	2	1
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	9	2	3	4
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	15	6	4	5
Enplegua eta Gizarte Politikak	9	4	3	2
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	7	1	4	2
Ogasuna eta Ekonomia	9	3	0	6
Hezkuntza	18	10	5	3
Osasuna	13	7	3	3
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	5	2	1	2
Kultura eta Hizkuntza Politika	1	0	1	0
Segurtasuna	9	4	3	2
Lana eta Justizia	4	1	1	2
GUZTIRA	105	43	30	32

Iturria: Tramitagune

Onartutako dekretu guztiak zerrenda batean ageri dira, sailen arabera multzokatuta, **6. eranskinean**.

2018rako Urteko Araugintza Planaren esparruan onartutako dekretuez gain, beste batzuk onartu dira plan horretatik kanpo, eta horien artean hauek nabarmendu daitezke:

	2018KO PLANETIK KANPO ONARTUTAKO DEKRETUAK	Saila
1	120/2018 Dekretua, uztailaren 30ekoa, ehiza-errolarena	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak
2	173/2018 Dekretua, abenduaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko langileek aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean jasoko dituzten ordainsariei eta borondatezko hobekuntzei buruzkoa	Gobernantza
3	174/2018 Dekretua, abenduaren 3koa, errepideen alorrean irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruz Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak egindako akordioa onartzen duena.	Gobernantza
4	178/2018 Dekretua, abenduaren 11koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak Basurtuko Ospitalea - Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez egindako akordioa, Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa.	Gobernantza

ONDORIOAK

Urteko Araugintza Planaren betetze-maila horrek honako gogoeta hauek eragin ditu:

1

Jaurjaritzaren 2018rako Urteko Araugintza Plana asmo handikoa izan zen sailen aldetik.

2

Alabaina, aurreikusitako dekretuen % 41 baino ez da onartu, ekitaldi osoan. Beraz, plan horren betetze-maila, 2017an gertatu zen bezala, hasierako aurreikuspenen azpitik geratu da.

3

2017an, apenas bete zen urterako aurreikuspenaren % 39. Bi ekitaldietan joera eta lortutako emaitzak antzekoak izan direla kontuan izanik, sailek euren helburuak haztatu beharko dituzte 2019rako Urteko Araugintza Plana prestatzen denean.

6. EKINTZA GARRANTZITSUENAK.

“Gehigarria. Saisetako 2018. urteko jarduketa garrantzitsuenak, sailaren arabera multzokatuta” izenburuko dokumentuan jaso dira, sailaren arabera multzokatuta, sail bakoitzak Gobernu Programan bere gain hartutako konpromisoak betez egin dituen jarduketa nagusiak.

Horietatik garrantzitsuenen zerrenda jaso da **4. eranskinean**, kronologikoki ordenatuta eta Gobernu Programan jasotako oinarrien egitura kontuan hartuta.

7. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAK.

Jaurlaritzako sailek, haren erakunde autonomoek eta Administrazio instituzionaleko gainerako erakundeek 2018an zehar onartu dituzte 2018rako dirulaguntzen plan estrategikoak (DLPE).

Plan horiek guztiz esanguratsuak dira, euren bidez zehazten direlako onura publiko eta interes sozialeko jardueren sustapena eta helburu publikoen sustapena eta lorpena babesteko lerroak, dirulaguntzen arloko politikak martxan jarri. Legegintzaldi honetarako planteatutako helburuen lorpenari begira erakunde publikoek elkarrekin eta erakunde publikoekin batera jardutearen aldeko apustuaren isla dira, beraz.

2018an guztira onartutako dirulaguntzen plan estrategikoek, deialdien eta dirulaguntzen bestelako modalitateen bitartez, esleitzeko fondoak 1.621 milioi eurotara heltzea ekarri dute, ekitaldi honetarako eta hurrengoetarako dagozkion aurrekontu-konpromisoekin. Programaren oinarrien arabera banaketa hauxe izan da:

2018an onartutako EAEko sektore publikoko dirulaguntzen programa estrategikoak		
Oinarria	Izapideen egoera	Zenbatekoa
1	Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasagarritasuna	922.- M€
2	Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak	639.- M€
3	Bizikidetzeta eta giza eskubideak	52.-M€
	GUZTIRA	1.621.- M€

Sailkako banaketa 5. eranskinean ageri da.

Jaurlaritzaren jarduketa horren garrantzi ekonomikoaren ikuspegi osoagoa izateko, zerrenda horri erantsi zaizkio honako hauek: batetik, euren izaera bereziagatik (Legebiltzarrak Aurrekontuen Legean onartuak izateagatik) dirulaguntzen plan estrategikoetan jaso ez diren dirulaguntza izendunen zenbatekoa, eta bestetik, zuzeneko dirulaguntzak, Gobernu Kontseiluak onartzen dituenak, zenbait berezitasun egiaztatuz gero. Batzuek zein besteek garrantzi nabarmena izan dezakete Jaurlaritzako erantzukizun-arloek ematen dituzten dirulaguntzak banatzeko jardueraren barruan. Sartu diren datuak alde aurretik erkatu egin dira ukitutako sail, erakunde autonomo eta Administrazio instituzionaleko erakunde guztiekin.

ONDORIOAK

1

Onartutako dirulaguntzen plan estrategikoen bitartez bideratutako laguntzetako neurri ekonomikoek 1.621 milioi euro egiten dute.

2

Sailetako dirulaguntzen plan estrategikoak ezinbesteko tresnak dira gobernu-ekintzaren jarraipen eta azterketarako, Gobernu Programako helburuen lorpenari begira erakunde publikoek elkarrekin eta erakunde pribatuekin batera jardun dezaten sustatzeari eta horretarako laguntza emateari dagokionez.

Horregatik, azpimarratu behar da garrantzitsua dela sailek eta laguntza-programak diseinatu eta gauzatzeko ahalmena duten haien menpeko organoek dirulaguntzen plan estrategikoa garaiz onartzea, laguntza-programak martxan jarri baino behar beste denbora lehenago.

II. atala

Emaitzak

8. 15 herri-helburuak
9. Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programa
10. Gobernu-kudeaketaren adierazleen aginte-taula

8. 15 HERRI HELBURUAK

Gobernu Programan 15 herri-helburu ezarrita daude. Helburu horien betetze-mailak eragin oso handia izango du, XI. legegintzaldiko gobernu-ekintzaren emaitza nagusien lorpena zehazteko.

Hamabost helburu horiei lotutako adierazleen egoera hauxe zen 2018ko abenduaren 31n:

15 HERRI HELBURU, "EUSKADI 2020": JARRAIPENA, 2018KO ABENDUA					
	HERRI HELBURUA	ADIERAZLEA	AZKEN DATUA	2020 HELBURUA	JOERA
1	Langabeziaren tasa % 10 baino txikiagoa izatea	Langabezia-tasa (BJA, Eustat)	% 10,2	< % 10	
2	20.000 gaztek lehenengo lan-esperientzia izatea	Lehen lan-esperientzia sustatzeko programetan parte hartzen ari diren gazteak	15.853	20.000	
3	BPGd industrialak % 25 izan dadin lortzea, eta EBko biztanleko BPGd-aren % 125era iristea	Industriaren balio erantsia / BPGd-a (Ogasun eta Ekonomia Saila) Biztanleko BPGd-a (Eurostat)	% 24,3 % 121,0	% 25 % 125	
4	I+Gko 100 proiektu estrategiko	HAZITEK programak edo baliokideak (ZTBP) finantzatutako I+Gko proiektu estrategikoak	67	100	
5	Berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketa % 20 murriztea	BEGen murrizketa 2005eko aldean (Europa 2020 helburua) (Eurostat)	% 26	% 20	
6	Defizit publikoaren Europako konpromisoa betetzea	Urteko kontabilitatea. Ogasun eta Ekonomia Saila.	% 0,62 Superabita	% 0	
7	Gardentasunaren nazioarteko indizeetan lider izatea	INCAU indizea (International Transparency Organization)	% 100	% 100	
8	Bizi-itxaropena urtebete luzatzea	Bizi-itxaropena jaiotzerakoan (EIN)	83,5	84,1	
9	Eskola uztearen tasa % 8tik beherakoa izatea	Eskola uztearen tasa (Eurostat)	% 7	< % 8	
10	25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea	25 urtetik beherako biztanle euskal hiztunen portzentajea (Eustat)	% 81,2	% 75	
11	Pobreziaren tasa % 20 murriztea	Pobrezia-tasa (Eurostat)	% 9,7	< % 8,7	
12	Jaiotza-tasa igotzea. Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak igotzea	Jaiotza-tasa / 1.000 biztanle (Eurostat)	7,9	> 8,7	
		Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzen programaren zenbatekoa (aurrekontuak)	34,5 M€	41,2 M€	
13	Euskadi Europako lehenengo lau herrien artean jartzea genero-berdintasunean	Gender Equality Index (European Institut for Gender Equality -EIGE-)	9. postuan	4. postuan	
14	ETA behin betiko armagabetzea eta desagitea	<ul style="list-style-type: none"> 2017ko apirilaren 8a: ETAREN behin betiko armagabetzea 2018ko maiatza 4a. ETAREN behin betiko desagitea 			
15	Estatutu politiko berria	<ul style="list-style-type: none"> 2017ko urtarrila: Eusko Legebiltzarrean autogobernuari buruzko ponentzia eratztea. 2018ko apirila. Alderdi politikoek dokumentuak aurkezteko eta adituen agerraldietarako fasea amaituta 2018ko iraila. Oinarriak eginda. Adituek lantzeko fasean 			



Helburua lortu da edo adierazleak joera positiboa du




Helburua lortu gabe dago edo adierazleak joera negatiboa du

Ondoren adierazle horietariko bakoitzaren egoera eta bilakaera aztertuko ditugu.

1

2020rako, langabezia % 10etik behera



Iturria: Eustat (BJA)

Gogoetak

- Adierazle honen joera positiboa da. Langabezia-tasak 3,2 puntu galdu ditu legegintzaldia hasi zenetik (2016), eta lortu da helburua, % 10 baino txikiagoa izatea.
- Helburu horretarako erreferentziako datua BJA (biztanleria jardueraren arabera) inkestak eskaintzen duen langabezia-tasa da, Eustatek kalkulaten duena, horixe delako EAEko errealitateari ondoen egokitzen zaiona.
- 2018ko laugarren hiruhilekoari dagokion datua (%10,2) gorakada txiki bat izan du hirugarren hiruhilekoari dagokion %9,5arekin alderatuz. Edozelan ere, joera positiboa izaten jarraitzen du eta 2019an konpromisoa beteko dela aurreikusten da.
- Ekainaren 12ko bileran Gobernu Kontseiluak 2019rako onartu zituen aurrekontu-gidalerroetan Ogasun eta Ekonomia Sailak egindako iragarpenen arabera, 13.200 enplegu garbi gehiago sortuko dira 2019an, eta, horrenbestez, “*langabezia-tasa % 10 azpitik*” mantenduko da.
- Enpresa-erakundeek ere oso aurreikuspen positiboak egin dituzte enpleguaren bilakaerari buruz. Confedebek 2018ko abenduaren 27an aurkeztutako txostenaren arabera, 2019. urterako 976.000 pertsona egongo dira gizarte segurantzari afiliatuta, eta langabezia-tasa murriztu egingo da % 8 baino txikiagoa izan arte.
- Edozelan ere, adierazle honen aldaketen kalterik gabe, garrantzitsuena haren joera positiboa da, hala inkestak, nola langabeak eta Lanbideek erregistratutako gizarte segurantzari afiliatuta kontuan hartzen badira.

2

20.000 gaztek lehenengo lan-esperientzia izatea

Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren 2018ko bilakaerari buruzko txostenean. Programa hori gauzatzen hasi zenetik igaro diren bi urteetan guztira 16.321 gaztek eduki dute lan-esperientzia berri bat. Horrek esan nahi du hasieran ezarritako helburuaren % 81,6 bete dela. Ikus taula:

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako helburuak 2017-2020	Behin betiko emaitzak 2017	Aurrerapena 2018	Emaitza metatuak 2017-2018*
Lehen Aukera programa	3.000	498	282	780
Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa	5.000	2.166	4.742	6.908
Gazte ekintzaileei laguntzea	3.500	804	819	1.623
Tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez kontratatutako gazteak	2.500	834	830	1.664
Gazteak, lan-eskaintza publikoetan	3.200	1.868	2.045	3.913
Errelebo-kontratua	400	31	30	61
Gazteak Itzultzeko Programa	200	2018an hasia	6	6
Prestakuntza eta enplegurako bekak	1.800	612	721	1.333
Sektore berezietako programak	400	2018an hasia	33	33
Gazteen enplegurako programak, guztira	20.000	6.813	9.508	16.321

*Bildutako datuak kalkulatzeko, 2017ko emaitzei 2018ko abenduaren 18ra arte lortutako emaitzak batu zaizkie. Iturria: Norberaren elaborazioa.

Gogoetak

- Lortu beharreko 20.000 gazteen zifra hori legegintzaldiko lau urteen artean banatu zen behin-behinean, honela: 5.000 urte bakoitzean (% 25 urtean). Ondorioz, 2017-2018 biurtekoan, betetze-maila (% 81,60) helburuaren gaineratik dago, argi eta garbi.
- Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioari buruzko datuak, funtsean, Lanbide Heziketa Dualeko ikasleen kontratazio-tasa izugarri handiari zor zaizkio (ikasle horiek amaitzen dituzten ikasleen % 84k hurrengo egunerako badaukate lan-kontratua). Ratio hori, mantendu ez ezik, orain arte lortutako datuen arabera, nabarmen hazi da 2018an, eta heziketa dualaren eskaintzaren gehikuntza kontuan hartzen badugu, gainera, jarduketa hori gako izan daiteke legegintzaldiko helburu hau betetzeko.
- Erretiratuen lekua lan-eskaintza publikoen bidez hartu duten 35 urtetik beherakoen 2017ko eta 2018ko kopuru metatua 3.913 izan da, aurreikusitako helburua baino askoz handiagoa. 2020ra arte guztira 13.000 lanpostu betetzeko lan-eskaintza publikoak onartzekoak dira. Hori horrela, pentsa dezakegu helburua aise beteko dela eta 5.000 gazteri eragingo diela (35 urtetik beherakoek txanda irekiko lanpostuen % 40 beteko dituztela aurreikusita egin da kalkulua)
- Helburuak lortu ez dituzten programen eraginkortasuna hobetu beharra dago (Lehen aukera, Erreleboa eta Sektore bereziak), bai eta Gazteak Itzultzeko Programarena ere. Horretan lan egiten ari da deialdi horien hartzaile diren agente ekonomikoekin batera.

3a

BPGd industrialia % 25 izan dadin lortzea

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Euskadi	24,5	24,2	24,1	24,3	24,4	24,3
	2013ko 3. h	2014ko 3. h	2015eko 3. h	2016ko 3. h	2017ko 3. h	2018ko 3. h
Euskadi	24,2	24,2	24,2	24,4	24,3	24,3

Euskadi 2020 helburua. % 25.

Iturria: Eustat. Kontu Ekonomikoak

Gogoetak


- Herri-helburua da industriak BPGd-an duen pisua % 25era iristea 2020an.
- 2017aren amaieran % 24,3 zen. Euskadik % 24aren gainetik mantentzen du BEGd industrialaren pisua. Tasa hori EBN % 19,7koa da, eta Espainian % 18koa.
- Dakigun azken datua 2018ko hirugarren hiruhilekoko da: % 24,3. Azken lau urteetan hirugarren hiruhilekoan izandako portzentajeen parekoa da.
- Adierazle horren joerak pentsarazten du legegintzaldi osoan % 24aren gainetik mantendu ahal izango dela, eta aldatzekotan apur bat egingo duela gora, baina zaila izango da % 25era iristea.
- Horren arrazoietako bat da EAEko ekonomiaren hazkundera —2017an urteko hazkundera % 3koa izan zen— modu orekatuan banatu dela lau sektoreen artean. Hala, 2017an industria-sektorea % 2,7 hazi zen, zerbitzuen sektorea % 3,1 eta eraikuntza-sektorea % 2,5.
Inguruabar horrek, hazkunde ekonomikoaren ikuspegitik begiratuta positiboa izan arren, zailago bihurtzen du helburua lortzea, hau da, osotasunean industriak pisu handiagoa izatea.
- Ogasun eta Ekonomia Sailaren 2018. eta 2019. urteetarako aurreikuspenen oreka horri eusten zaio
- Beste arrazoi bat aipatu behar da: azken urteotan industria-sektoreko zenbait jardura ekonomiko zerbitzuen sektorera lerratuz joan direla. Industriadako zerbitzu aurreratuak deitutakoei buruz ari gara. Orain urte asko ez dela, industria-enpresen zerbitzu propioak ziren, baina pixkanaka espezializatuz joan dira eta, ondorioz, kanpoko zerbitzu bihurtuz.
- Interesgarria izan liteke bilakaera horren azterketa egitea, Jaurilaritzak, konparazioz, Euskadin industriari zuzenean lotutako jardura ekonomikoaren kuantifikazioa egin ahal dezan, industria-sektoreak berezkoak dituen zerbitzuetako (industria-diseinua, ingeniariaritz...) jardura ekonomikoarena, alegia.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Euskadi	120	117	119	119	120	121

Iturria: Eurostat (2019ko urtarrila), Euskadi 2017 datua izan ezik, Ogasun eta Ekonomia Sailak lantzen baitu datu hori. Biztanleko BPGd-a. EBko indizea, 100eko oinarria.

Gogoetak

- Herri-helburua da Europako batz bestekoaren % 125era iristea. Eskura daukagun azken datua 2017koa da, eta Euskadi % 122,4an zebilen (2016an baino 1,4 puntu gorago). 2017ko portzentajea azken bost urteetan lortutako handiena da.
- Espainia 2017an % 92ra iritsi zen, 2016an baino 0,8 hamarren gorago, eta Euskadi, berriz, 2016an % 119,7ko datua izatetik 2017an % 121eko datua izatera igaro da, bere portzentajea % 1,5 handituta.
- Hurrengo urteetarako joerari dagokionez, BPGd-aren eboluzioa ikusita, iragar daiteke 2018an eta 2019an behintzat Euskadi Europako batezbestekoaren gainetik haziko dela, eta, beraz, handitu egingo dela per capita errentarekiko aldea.
- Ekainean Ogasun eta Ekonomia Sailak 2019rako aurrekontu-gidalerroetan egin zuen iragarpenaren arabera, Euskadik 2018an BPGd-aren % 2,8ko hazkundera izango du eta EBk % 2,3koa. Eta 2019an, Euskadik % 2,3ko hazkundera eta EBk % 1,9koa.
- Dena dela, litekeena bada ere 2018an eta 2019an helburura gehiago hurbildu eta % 125era iristea, 2020an zailtasun handiak egongo dira, EBko batez besteko hazkundererekiko aldeak ez direlako izango maila hori lortuko dela ziurtatzeko bezainbestekoak.



Iturria: Eustat eta Eurostat

4

I+Gko 100 proiektu estrategiko

Hazitek programaren urteko deialdian finantzatutako I+Gko proiektu estrategikoen kopuruaren bitartez neurtzen da adierazle hori

Honako hauek izan dira 2018ko deialdiaren emaitzak:

ZTBP LEHENTASUNA	PROIEKTUEN KOP.	AURREKONTU OSOA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
Fabrikazio aurreratua	19	105,2 M €	23,1 M €
Energia	9	49,8 M €	11,8 M €
Biozientziak / Osasuna	4	25,8 M €	4,1 M €
Lurraldea	0	0 M €	0 M €
GUZTIRA	32	180,8 M €	39,0 M €

Metatua 2017-2018

ZTBP LEHENTASUNA	GUZTIRA	AURREKONTU OSOA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
Fabrikazio aurreratua	46	288,0 M €	59,3 M €
Energia	12	77,8 M €	16,0 M €
Biozientziak / Osasuna	8	48,8 M €	6,7 M €
Lurraldea	1	4,8 M €	0,3 M €
GUZTIRA	67	419,4 M €	82,3 M €

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila


Gogoetak.

- 2020 Helburua lortzeko, urtean finantzaketaren xede izango ziren 25 proiektu estrategiko aurreikusi ziren. 2017-2018 biurtekoan aise gaintu dira aurreikuspen horiek; beraz, ziur aski 100 proiektuetara iritsiko da 2020rako.
- Finantzatutako proiektu gehienek 3 urteko gauzatze-epea dute. Azaldutako zifrak hiru urteetarako guztizko aurrekontuari eta programatik epe osorako lortutako dirulaguntzari dagozkie.
- Programa horretan zer nolako proiektuak finantzatzen diren erakusteko, EZTBPko lehentasunetako bakoitzean finantzatutako proiektuen artean honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

PROIEKTUA	AZALPENA
R-COMPOSITES 4.0	Etorkizuneko lantegietan material konposatuak konpontzeko estrategia berriak
EXTREPA	Automobilgintzako tamaina handiko osagaiak material berriekin fabrikatzeko teknologia garatzea
MODEOL	Energia eolikorako moduluen sorrera teknologiko berria Euskadin
FLOW	Haize-sorgailu flotatzaile bat garatzea, BiMEPen haren erakustaldia egiteko eskala errealean
PRODUTRA	Gaixotasunak diagnostikatzeko eta tratatzeko produktu biomediko aurreratu berriak
EREITEN	Energia berriztagarriak eraikuntzan, eta teknologia berri efizienteen integrazioa

5

Berotegi-efektuko gasen isurpena % 20 murriztea



Euskadi 2020 helburuak: < % 80

Iturria: Eurostat (2017/03/07) eta Berotegi-efektuko gasen emisioen Inbentarioa (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila)

Gogoetak

- Adierazleak 2005. urtea hartzen du erreferentzia (% 100), eta planteatzen du, EBk bezala, 2020rako % 20 murriztea garraio-, bizitegi-, nekazaritza-, hondakin- eta industria-sektoreetatik isurtzen diren berotegi-efektuko gasak (emisio lausoak deritzenak)
- Eurostatek 2017ko martxoan emandako azken datuaren arabera, Euskadi ari da helburu hori betetzen. Bere emisioak % 26 murriztu ditu. Europar Batasunean, berriz, emisioak % 17,3 murriztu dira, eta Estatuan batez beste % 24,6 (azken bi datu horiek 2015. urtekoak dira).
- Bada kontuan hartu beharreko beste alderdi bat: Euskadiko BPGd-ak 2005etik % 12 egin du gora eta bitartean emisioek % 26 egin dute behera. Hortaz, Euskadik hazkunde ekonomikoa eragitea lortzen du ingurumenaren gaineko inpaktua murrizten ari den bitartean.
- 2016an Euskadik horrelako gasen 18,9 milioi tona isuri zituen atmosferara. Europar Batasuneko emisio guztien % 0,4 dira. Portzentaje hori bat dator Euskadiren BPGd-ak Europar Batasunarenean duen pisuarekin (2016an % 4,7). Dena dela, kontuan hartu behar dugu industriaren garrantzia, biztanle-dentsitatea eta errepideko garraio-sareena EBko batez bestekoak baino askoz handiagoak direla Euskadin
- Energiaren sektoreak 2016an % 11 murriztu zituen isurketak, energia elektriko gutxiago kontsumitu zelako, batez ere industrian eta bizitegi-sektorean. Industria-sektoreak ere %0,3 murriztu zituen zuzeneko isurketak. Portaera txarra garraioaren sektoreak izan zuen: emisioak % 5 handitu zituen, errepideko garraioa gehiago erabiltzeari lotuta, ekonomiaren hazkunderaren ondorioz, seguru asko
- Horregatik, mugikortasun jasangarriari ematen zaion bultzada oro gako izango da adierazle horren eboluzioan.
- 2017ko datuak 2019ko martxorako edukitzea espero da. Orduan egingo da Klima-aldaketari buruzko Biltzarra (2019ko martxoaren 6tik 8ra bitartean)

6

Defizit publikoaren Europako konpromisoa betetzea

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018 3Q
% / BPGd	-% 1,46	-% 1,24	-% 1,05	-% 0,73	-% 0,62	% 1,50	% 0,65
€ (milioiak)	-933	-777	-672	-484	-429	1.074	488

Iturria: IGAE (Intervención General de Administración del Estado) SEC 2010.Base 2010

Helburu zehatza.

Defizit publikoaren Europako konpromisoa betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak, zehazki, mugarri hauek ezarri behar ditu: 2017an, % 0,6; 2018an, % 0,4; 2019an, % 0,1; eta 2020an, % 0.


Herri-helburu zehatza, beraz, 2020an % 0ko defizita lortzea da, 2017rako, 2018rako eta 2019rako aurreikusitako tarteko helburuak bete ondoren.

Gogoetak

- 2017an alde handiz gainditu zen aurreikusitako helburua. Izan ere, Euskadik % 1,5eko superabitarekin amaitu zuen ekitaldia. Arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren: diru-bilketa handiagoa izatea, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan 2007-2016 bitarteko kupoen likidazioari buruz lortutako akordioa.
- Eskura dagoen azken datua irailekoa da, eta Euskadik % 0,65eko superabita zeukan une horretan.
- 2018ko itxierari buruzko aurreikuspena zuhertasunez egin behar da, horretan eragina izango dutelako bai gastuaren eboluzioak bai diru-sarrerarenak. Dena dela, EAEk 2018an konpromisoa beteko duela iragar daiteke.
- Nolanahi ere, 2020ari begira, 2018ak baino gehiago 2019ak markatuko du eskakizun zorrotza, 3 hamarreneko murrizketa planteatu baita, defizita % 0,1era jaisteko.
- Defizitaren helburuarekin batera, Gobernu Programan ezarritako beste bi baldintza ere bete behar dira:
 - o Gehieneko zorraren helburua, hau da, 2018rako % 14,4ko zorra izatea gehienez. 2017ko ekitaldiaren itxieran portzentajea % 14,1ekoa zen.
 - o Berariazko konpromiso hau: *“Eskakizun horiek betetzeak ez die eragin behar ez gizarte-politikei ez funtsezko zerbitzu publikoei”*.
Gastu sozialaren aurrekontua (hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-politiken arlokoa) 403 milioi euro handitu da 2016tik (2016ko 6.514 milioietatik 2018ko 6.917 milioietara), eta aurrekontuan duen pisua % 64,9tik % 67,3ra igo da.

7

Gardentasunaren nazioarteko indizeetan lider izatea



Iturria: Nazioarteko Gardentasuna


Gogoetak

- Herri-helburua da aurre-aurrian jarraitzea gardentasunaren nazioarteko indizean.
- Nazioarteko indize hori autonomia-erkidegoka hedatzen da, eta, gure kasuan, Euskadi Estatuko batezbestekoa baino 6 puntu gorago dago, eta autonomia-erkidegoen artean lehenengoa da.
- Helburua betetzea ez da erraza izango, Euskadik hobetzeko tarte txikia edo ia ezereza daukalako, dagoeneko puntuazio gorena baitauka.
- Neurketa batetik bestera, 100 puntuei eusteko baldintzak gero eta zorrotzagoak dira, eta Jaurlaritza behartuta dago sistemak neurketa bakoitzean gardentasuna areagotzeko zehazten dituen hobekuntzak sartzeraz.
- Gardentasunean egindako aurrerapenak urteroko txostenetan jasotzen dira 2015az geroztik. Uztailaren 3an Gobernu Kontseiluari aurkeztutako txostenak dioenez, datuak eta garrantziko informazio berria argitaratu behar diren etapatik beste batera igaro da: argitaratzen den aldizkako informazioaren egiturari, eskuragarritasunari eta argitasunari jarri behar zaie arreta. Helburua da datuak eskuragarriago, kontsumigarriago eta ulergarriagoak izatea herritarrentzat.
- Gobernu Irekirako Aliantzak (Open Government Partnership – OGP) apirilaren 9an aditzera eman zuen erabaki hau: *Euskadi hautatzea Tokiko Gobernuen Programan parte hartuko duten mundu osoko 20 eskualdeen artean.*

	AUTONOMIA ERKIDEGOAK	PUNTUAK (1 eta 100 artean)
1	Euskadi	100
2	Balearrak	98,1
2	Katalunia	98,1
2	Madril	98,1
5	Errioxa	97,5
6	Murtzia	96,9
7	Andaluzia	96,3
8	Kanariak	95,0
8	Kantabria	95,0
10	Gaztela eta Leon	94,4
10	Valentzia	94,4
12	Asturias	93,8
13	Galizia	91,9
14	Gaztela-Mantxa	90,6
15	Aragoi	88,8
16	Extremadura	88,1
17	Nafarroa	81,9
	BATEZBESTE	94

8

Bizi-itxaropena urtebete luzatzea



Euskadi 2020 helburua: 84, 1 urte


Iturria: Osasun Dokumentuak eta Informazio Zerbitzua. Osasun Saila

Gogoetak

- Legegintzaldiaren hasierako datua 2015ekoa da. Beraz, helburua betetzeko, bizi-itxaropena 84 urtekoa izan behar da 2020an.
- 2015 eta 2016 bitartean Euskadik bizi-itxaropenaren azken bost urteetako igoerarik handiena lortu du. Horrenbestez, bizi-itxaropena 83,5 urtekoa da, aurreikusitako helburuaren oso hurbilekoa.
- Azken 40 urteetan, bizi-itxaropena urtean 3 hilabete luzatu da batez beste. Beraz, hurrengo bi urteetan joera horrek iraungo balu, berraztertutako helburua betetzea.
- Bizi-itxaropena medikuntzaren aurrerapenei eta bizi-kalitateari lotuta dago, eta, estatistika-organismoek egiten dituzten aurreikuspenen arabera, hurrengo urteetan luzatuz joango da harik eta 2065ean agian 90 urtera iritsi arte.
- Ezagutzen dugun Europako azken konparazio-azterketan (2016), Euskadi Europako herrialdeen artean aurreaurrean dago jaioberrien bizi-itxaropenari dagokionez (83,5 urte). Emakumeen kasuan lehenengoa da (86,3 urte), atzetik Espainia eta Frantzia dituela (hurrenez hurren, 85,8 urte eta 85,7 urte). Gizonen kasuan seigarren lekuan dago (80,3 urte), aurretik dituela Italia (81 urte), Suedia eta Malta (80,6 urte), Zipre eta Espainia (80,5 urte).

9

Eskola uztearen tasa % 8tik beherakoa izatea




Iturria: Eurostat/MECD

Gogoetak

- Ratio hori erabiltzen da jakiteko ea, ehunekotan, 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean zenbatek ez duen amaitzen Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (Batxilergoa edo erdi-mailako Lanbide Heziketa).
- Adierazle horren joera positiboa da. Uzte-tasa 0,9 puntu jaitsi da legegintzaldia hasi zenetik (2016), eta aise bete da ezarritako helburua, hau da, tasa % 8tik beherakoa izatea. Europa 2020 helburua da tasa % 10 baino txikiagoa izatea EB 28an, oro har.
- Beherakada Europar Batasuneko batez bestekoa baino are handiagoa izan da: Europan 2012az geroztik 2,1 puntu jaitsi da, eta Euskadin, berriz, 5,4 puntu.
- Europako ratorik txikienetakoa da, Finlandia, Suedia, Danimarka, Herbehereak edo Alemania bezalako herrialdeetakoa baino are txikiagoa.
- Datu hori eskolatze-tasen datuarekin gurutzatzen badugu —Euskadin 3 urteko haurren % 93 baino gehiago daude eskolatuta, eta adin horretatik gora % 99 baino gehiago— ondoriozta dezakegu sistemak Gobernu Programako bi eskakizun betetzen dituela: 1) Inklusiboa da, biztanleriaren ia % 100 biltzen baitu; 2) Ekitatiboa da, saiatzen baita ikasleen portzentajerik ahalik eta handienak Bigarren Hezkuntza amai dezan.
- Hala ere, badira zaindu beharreko bi faktore, gaur egun tasa hori % 7koa izateak ez baitu bermatzen legegintzaldia bukatu baino lehen igoerarik ez izatea.
 - o Lehenengo faktorea krisi ekonomikoaren amaiera da, langileen eskaria handitu eta pertsona gazteagoentzat lan-aukera berriak sortzea eragin dezakeelako. Kontuan izan behar da krisiaren aurretik, 2008. eta 2009. urteetan, eskola uztearen tasa % 14aren gainetik zegoela (14,3 eta 14,8, hurrenez hurren), Europako batezbestekoaren paretsu (14,9 eta 14,7) eta Estatuko batezbestekotik oso urrun (30,8 eta 31,7).
 - o Gure eskoletan ikasle etorkinak gero eta gehiago izatea. Hori horrela da, eta ratioan duen eragina txikitzeko, ikasle horien eskola uztearen tasa ahal den neurrian hurbildu beharra dago tasa orokorrera.

10

25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea



Iturria: 2011eko Biztanleriaren eta etxebizitzaren Zentsua eta VI. EAE-ko Inkesta soziolinguistikoa 2011 eta 2016

Gogoetak


- Adierazle horrek 5 eta 24 urte bitarteko euskal hiztunen ehunekoa erakusten du adin-tarte horretako populazio osoarekin alderatuta. Hau da, 5 eta 24 urte bitarteko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 81,2 euskal hiztunak dira. Erreferentzia gisa hartu den iturria Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua da, Eustatena.
- [EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa \(2011 eta 2016\)](#) aztertuta, antzeko eboluzioa ikusten da. Populazio horretan euskal hiztunak 1991n % 25 izatetik 2016an % 71,4 izatera igaro dira, eta egiaztatuta dago euskal hiztunen kopuruaren igoerarik handiena biztanle gazteenen artean gertatzen ari dela. Inkesta hori 16 eta 24 urte arteko biztanleei buruzkoa da.
- B eta D ereduak 16 urtera arteko matrikulazio-tasak ere kontuan hartzen baditugu, egiazta dezakegu ikasleen % 90 baino gehiago matrikulatzen direla eredu horietan. Beraz, 5 eta 25 urte bitarteko euskal hiztunen kopuruak ziur aski gorantz jarraituko du legegintzaldiko hurrengo urteetan.

MATRICULACIÓN POR MODELOS Y NIVELES DE ENSEÑANZA (Curso 2017/18)

Nivel de Enseñanza	A	B	D
Infantil (0-5 años)	3%	17%	80%
Primaria (6-11 años)	4%	21%	75%
Básica obligatoria (12-15 años)	11%	19%	70%

11

Pobrezia ekonomikoaren tasa % 20 murriztea




Euskadi 2020 helburua. < % 8,7

Iturria: Eurostat

Gogoetak

- Zenbat pertsonak dituzten batez besteko diru-sarreraren % 60 baino diru-sarrera urriagoak, kontsumo-unitateko; horixe neurtzen du, ehunekotan, ratio horrek. Erreferentzia gisa hartzen den datua Eurostatena da (Arope indizea). Datu erregionalizatuak eskaintzen ditu, Estatuko batez besteko errenta oinarritzat hartuta.
- Herri-helburua da tasa hori % 20 murriztea, legegintzaldiaren hasieran izandako datuaren aldean (% 10,9). Beraz, 2020an % 8,7 azpitik egon behar luke.
- Balio absolutuaren ikuspegitik, datu hauek nabarmentzen dira:
 - o Euskadiko tasa 2017an Europako txikienetakoa izan zen. Txekiar Errepublikakoa bakarrik izan zen apalagoa (% 9,1), eta portzentaje nabarmen handiagoak izan zituzten, esaterako, Finlandiak (% 11,5), Suediak (% 15,8), Danimarkak (% 12,4), Alemaniak (% 16,1) eta Herbehereek (% 13,2).
 - o Gauza bera gertatzen da autonomia-erkidegoen mailan. Nafarroa baino ez dago Euskadiren aurretik (% 8,3), Errioxa Euskadiren pare dago (% 9,7), eta gainerakoak oso urrun: Madrilak % 16,9ko tasa du, eta Kataluniak % 15ekoa.
- Nahiz eta 2017an gorakada bat izan, oro har Euskadin tasa murriztu egin da krisialdi ekonomikoan. Bitartean, Europan eta Estatuan igo egin da, apur bat bada ere. Análisi guztien arabera, Euskadin bilakaera horretan lagundu duten faktoreetako bat krisialdian zehar gastu sozialean egindako ahalegina izan da.


12^a Jaiotza-tasa igotzea



Jaiotzak mila biztanleko
Iturria: (EIN eta Eurostat)

Gogoetak


- Helburua Euskadin jaiotza-tasa igotzea da. Abiapuntuko datua, legegintzaldiaren hasieran, 8,4 zen. Beraz, herri-helburua da 2020an Euskadiko jaiotza-tasa 8,4tik gorago egotea.
- Daukagun azken datua 2018ko irailekoa da, eta urteko lehenengo hiruhilekoari dagokio. Eustaten datuen arabera, adierazleak joera negatiboa erakusten du, 2018ko lehenengo hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoan 3.867 ume jaio baitziren, aurreko urtean baino % 4,8 gutxiago
- Datuak jaiotza kopuruaren beherakada nabarmena jartzen du agerian, aurreko urteetan jada egiaztatutako joerari eutsiz. 2017an jaiotzen kopurua 17.055 izan zen, 2016an baino % 6,5 txikiagoa. Jaitsiera-tasa hori 2016koaren bikoitza da, urte horretan jaiotzen kopuruak % 3,4 egin baitzuen behera 2015ekoaren aldean.
- Ugaltzeko adinean dauden pertsonak gutxitu izana da azken urte hauetako joeraren arrazoi nagusia. Horren arrazoietako bat da 'baby boom'eko belaunaldia ia osorik amatasunaren adinetik irten dela. Beste arrazoi bat, 90eko hamarkadan jaiotza-tasaren beherakada handia gertatu zela. Horregatik, jaiotza-tasaren beheranzko ziklo horrek hurrengo urteetan iraun egingo du.
- Ziklo horri aurre egiteko, haren aurkako ekintzen beharra dago, eta Jaurlaritza neurri zehatzak hartzen ari da etxebizitzaren, gazteriaren, gizarte-politiken eta bateratzearen arloetan. Neurri horiek 2018ko ekainaren 19an onartutako **“Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako”** dokumentuan jasorik daude.



Iturria: Eustat

12^B

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak igotzea



Euskadi 2020 helburua. 41,25 M€

Iturria: Norberaren elaborazioa.

Gogoetak



- Herri-helburua da seme-alabak dituzten familientzako laguntzak handitzea, eta Gobernu Programako 139. konpromisoko 2. ekimenean zehaztuta dago: *“Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak % 50 handitu, bi urtetik hiru urtera igoz bigarren semearengatik edo alabarengatik ematen diren dirulaguntzak”*.
- Ondorioz, herri-helburu hori bitan banatzen da:
 - o Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak 2020ko aurrekontuan 41,25 milioi eurora iritsi behar lirateke (2016ko aurrekontuan baino % 35 gehiago jasoko lukete)
 - o Bigarren semearengatik edo alabarengatik ematen diren laguntzak hiru urtera luzatu behar lirateke 2020rako.
- Helburu horietatik lehenengoari dagokionez, 2018rako aurrekontuan ezarritako laguntzek % 25eko gehikuntza izan dute 2016koekin alderatuta. Beraz, funtsean, aurrekontu-helburua betetzen ari da. Eboluzio horren arabera, uste izatekoa da, 2019an, aurrekontu-mekanismo egokien bitartez, programa horretarako zuzkidurak berriro handituko direla, eta pixkanaka helburua bete ahal izango dugula 2020rako.
- Bigarren helburuari dagokionez, Jaurlaritzak konpromisoa hartu du seme-alabengatik laguntzak handitu eta hedatzeko, beheko taularen arabera, eta 2019an bi seme-alaba edo gehiago dituzten familiei aplikatuko zaizkiela aurreikusten da. Konpromiso horren arabera, seguru asko helburua bete egingo da 2020an.

Seme-alabengatik laguntzak Euskadin

Semea/Alaba	Familiaren errenta	Laguntzaren zenbatekoa	Laguntzaren iraupena
Lehenengoa	20.000€ baino gutxiago	900	Jaiotzean
Lehenengoa	20.000 - 30.000€	500	Jaiotzean
Lehenengoa	30.000€ baino gehiago	400	Jaiotzean
Bigarrena	20.000€ baino gutxiago	900	Hiru urtez
Bigarrena	20.000 - 30.000€	500	Hiru urtez
Bigarrena	30.000€ baino gehiago	400	Hiru urtez
Hirugarrena eta hurrengoak	20.000€ baino gutxiago	900	Sei urtez
Hirugarrena eta hurrengoak	20.000 - 30.000€	500	Sei urtez
Hirugarrena eta hurrengoak	30.000€ baino gehiago	400	Sei urtez

13

Euskadi genero-berdintasunaren arloan lehenengo lau herrialdeen artean kokatzea



Iturria: Eige eta Eustat

Oharra

Gobernu Programaren arabera, EBko herrialdeen artean laugarren lekura iristea dugu herri-helburu

Indize horren azken neurketan (2018an argitaratu zen, 2015. urteko datuekin) balorazio-irizpideak aldatu egin dira eta adierazle horren serie historiko osoa berregin da.

Ondorioz, Euskadi 5. lekuan egotetik 9. lekuan egotera igaro da. Beraz, badirudi zaila izango dela helburu hori betetzea.

Gogoetak

- Indize horretan erabateko berdintasunari 100 puntu ematen zaizkio, eta erabateko desberdintasunari 0 puntu. Euskadik 69,3 puntu ditu, Espainiak baino bat gehiago eta Europako batezbestekoak baino 3,1 gehiago.
- Euskadiren aurretik daude grafikoan ageri diren zortzi herrialdeak.
- Hauxe da ondorioa: Euskadi, planteatutako helburua lortzeko, 75 puntu ingurura iritsi behar da 2020rako.
- Indizeak sei osagai ditu: enplegua (Euskadik 72,2 puntu), boterea (52,4), osasuna (90,9), ezagutza (65,3), dirua (84,5) eta denbora (70,7)
- Hori dela eta, planteatutako helburura iristeko, Euskadik 75 puntu edo gehiago jaso dituen arloetan mailari eutsi edo are hobera egiteaz gainera, ahalegin berezia egin behar du puntuazio horren azpitik dauden arloetan
- Jaurlaritzak 2018ko ekainaren 19an onartutako Berdintasunerako VII. Plana erronka horretaz jabetu da, eta sei arlo horietako bakoitzean zuzeneko eragina izan dezaketen ekimen eta jarduketak zehaztu ditu.
- Enpleguaren, diruaren, boterearen eta ezagutzaren arloetan, zehazki, eragin positiboa izan behar luke Jaurlaritzak soldata-arrakala txikitzeko onartu duen jarduketa-planak. Plan horrek ere 2030ean du denboramuga.
- Ildo horretan, azaroan Gobernu Kontseiluak Euskadin Soldata-arrakala txikitzeko Estrategia eta Plan Operatiboa onartu ditu. Bertan jaso dira, batetik, hurrengo hamarkadarako ikuspegia eta helburuak, eta, bestetik, laguntza-neurri zehatzak, 2018-2020 bitartean emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasun handiagorako bidean aurrera egitea xede dutenak.
- Genero Berdintasunaren Europako Institutuak 2020an argitaratu behar du hurrengo datua. Horrek ez du eragotziko, bien bitartean, Euskadik konpromisoa hartzea, Berdintasunerako Planak proposatzen duen bezala, azken hori osatzen duten 31 adierazleak hobetzeko.

14

ETA behin betiko armagabetzea eta desegitea

2017ko apirilaren 8a: ETAREN behin betiko armagabetzea

2018ko maiatzaren 4a: [*ETAren behin betiko desegitea*](#)

15

Estatus politiko berria

- 2017ko urtarrila: Eusko Legebiltzarrean autogobernuari buruzko ponentzia eratzea.
- 2018ko apirila. Alderdi politikoek dokumentuak aurkezteko eta adituen agerraldietarako fasea amaituta
- 2018ko iraila. Oinarriak eginda. Adituek lantzeko fasean

9. SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALDEKO ESPARRU PROGRAMA

Programa hori 8.800 milioi euroz hornituta dago 2017-2020 aldirako, eta gobernu-ekintzaren ardatz nagusietako bat da legegintzaldi honetan.

Esparru-programa horren 2017ko jarraipen- eta ebaluazio-txostena Gobernu Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 29ko bileran aurkeztu zen, eta 2019ko urtarrilaren 10ean 2018ko emaitzen aurrerapen bat aurkeztu da.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako helburuak 2017-2020	Emaitza errealak, 2017	2018ko emaitzen aurrerapena	Metatua 2017-2018
Sustatu diren lanpostuak, guztira	58.000	15.799	18.216	34.015
Sustatu diren gazteentzako lanpostuak	20.000	6.813	9.508	16.321
Laguntza jaso duten enpresa berriak	6.000	1.557	2.036	3.593
Finantzatu diren ikerketa-proiektu estrategiko berriak	100	35	32	67
Atzerriko merkatuetan sartzeko laguntza jaso duten ETEak	1.200	245	432	677
Modernizatzeko eta hedatzeko proiektuetan laguntza jaso duten ETEak (batez ere, industriaren arlokoak)	1.100	431	863	1.294
Laguntza jaso duten ETEen berrikuntza-proiektuak	4.100	1.294	1.682	2.976
Azpiegituretako inbertsio-proiektu estrategikoak	40	34	35	35*

* Datu metatuak daude.

Ondorioak:

- Esparru-programak, bere indarraldiko bigarren urtean, 2018ko eraginari buruz erabiltzen ari diren aurreikuspenen arabera, gainditu egingo ditu aurreikusitako emaitzak. Aurrekontuaren betetze-maila ia % 100 da. Hau da, aurreikuspenen arabera 2017-2018 bitartean 4.000 milioi euro baino gehiago izango dira konprometituek.
- Jaurlaritzako hamar sail eta hemezortzi sailburuordetzak programaren garapenean parte hartzeak zailtasunen bat sortu izan duenean, hura saihestu egin da, agintari arduradun guztiak prest egon baitira lortu nahi ziren helburuak elkarlanean lortzen saiatzeko. Ildo horretan guztiz baliagarria gertatu da 2017ko jardueri zegokienez egin ziren jarraipen-lanetatik ateratako esperientzia.
- Azken ondorio gisa, baieztatu dezakegu ezen, Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren gobernantzaren ikuspuntutik, gerora begira egoera ezin positiboagoa dela.

10. GOBERNU PROGRAMAREN ADIERAZLEEN AGINTE TAULA

Jaurlaritzak 2018ko lehenengo hiruhilekoan XI. Legegintzaldiko Gobernu Programaren Adierazleen Sistemaz hornitu du bere burua. Sistemak honako egitura hau du:


GOBERNU PROGRAMAREN ADIERAZLEEN SISTEMA		
Gobernuaren Aginte Taula		Sailen hedapena
100 adierazle		165 adierazle
50 egiturazkoak	50 sektorialak	Sailen arabera multzokatuta

Aginte-aula horren bitartez Jaurlaritzako kideak eskura dituzte emaitza-adierazleen datu eguneratuak, 15 herri-helburuei eta Gobernu Programaren 1. oinarriarekin (Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna) eta 2. oinarriarekin (Giza garapena, kohesioa, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak) zerikusia duten helburuei eragiten dietenak.

Aginte-aulako 100 adierazleek Euskadiren posizioa erakusten dute EBko herrialdeekin eta, kasua bada, Estatuko autonomia-erkidegoekin alderatuta.

Gobernuak egiturazko 50 adierazleei buruzko laburpen-txostena jasotzen du aldian behin.

Sistemaren oinarria elkarlana da. Sailtako kabinete-zuzendaritzek (edo organo baliokideek), sailtako estatistika-organok, Eustatek eta Lehendakartzak lankidetzan estuan dihardute, eta Lehendakartzari dagokio sistema koordinatzea. Sailtako estatistika-organok adierazleen aginte-aula eguneratu eta berrikusteko eta haren kaudimen teknika bermatzeko garaian betetzen duten eginkizuna ezinbestekoa da.



Eranskinak



1. eranskina.- Legegintza Egutegiaren egoera

**XI. legegintzaldia: Legegintza Programaren betetze-maila
Egoera 2018ko abenduan**

LABURPEN TAULA

Konprometitutako lege-proiektuak	28
Lege-proiektuak, guztira	33
Onartutako lege-proiektuak	14
Administrazio-izapideetan dauden lege-proiektuak	12
Izapideak hasi gabe dauden lege-proiektuak	7

2017-2020 ALDIRAKO LEGEGINTZA PROGRAMAREN JARRAIPENA					
Urtea	Izena	Saila	Egoera, Jaurjarritza	Egoera, Legebiltzarrean	
2017	1. Portuak eta Itsas Garraioa	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	G. K. 2017-06-13a	Ekainaren 28ko 2/2018 Legea onartuta	
	2. Kultu Aretoak	Lehendakaritza	Izapidetzen		
2018	3. Gardentasuna, Herritarren Partaidetza eta Gobernu Ona	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	G. K. 2017/09/19	Izapidetzen	
	4. Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoa	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	G. K. 2017/06/27	Izapidetzen	
	5. Ekarpinak, 2017–2021 bitartean	Ogasuna eta Ekonomia	Hasi gabe		
	6. Euskal Estatistika Plana	Ogasuna eta Ekonomia	G. K. 2018/11/27	Izapidetzen	
	7. Lanbide Heziketa (*)	Hezkuntza	G. K. 2017/05/30	Ekainaren 28ko 4/2018 Legea onartuta	
	8. Euskal Enplegu Publikoa	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Izapidetzen		
	9. Euskal Sektore Publikoaren Ant. eta Funtzionamendua (*)	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	G. K. 2017/10/03	Izapidetzen	
	10. Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren Legea aldatzea	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Izapidetzen		
	11. Administrazio Publikoen Zehatze-ahalaren Legea aldatzea	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	G. K. 2018/11/27	Izapidetzen	
	12. dirulaguntzen Araubidea erregulatzekoa	Ogasuna eta Ekonomia	Izapidetzen		
	13. Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzea	Kultura eta Hizkuntza Politika	G. K. 2017/07/04	Ekainaren 7ko 1/2018 Legea onartuta	
	14. Poliziari buruzko Legea aldatzea	Segurtasuna	G. K. 2108/06/26	Izapidetzen	
	15. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak bermatzeko Legea aldatzea (*)	Enplegua eta Gizarte Politikak	G. K. 2108/04/17	Izapidetzen	
	16. Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerraraztekoa	Lehendakaritza	Izapidetzen		
	17. Mugikortasun Jasangarria	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Izapidetzen		
	18. Kirol Lanbideetan Sartzea eta Jardutea	Kultura eta Hizkuntza Politika	G. K. 2017/11/07	Izapidetzen	
	19. Kooperatibak	Lana eta Justizia	G. K. 2018/12/18	Izapidetzen	
	2019	20. Landa Garapenari buruzko 10/1998 Legea aldatzea	Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	Hasi gabe	
		21. Euskal Enplegu Sistema	Enplegua eta Gizarte Politikak	Hasi gabe	
22. Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea aldatzea		Enplegua eta Gizarte Politikak	Hasi gabe		
23. Klima Aldaketa (**)		Ingurumena, Lurralde Plang. eta Etxebizitza	Izapidetzen		
24. Aurrezki Kutxak eta Banku Fundazioak		Ogasuna eta Ekonomia	Hasi gabe		
25. Kultura Ondarea		Kultura eta Hizkuntza Politika	G. K. 2017/07/18	Izapidetzen	
26. Hezkuntza		Hezkuntza	Hasi gabe		
27. Kirolaren Legea eguneratzea		Kultura eta Hizkuntza Politika	Hasi gabe		
28. Dokumentuen Kudeaketa Integrala		Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Izapidetzen		
Beste batzuk	29. Gazteriaren Euskal Legea	Enplegua eta Gizarte Politikak	Izapidetzen		
	30. EAEko Adm. Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidego eta eskalen Legea aldatzea	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Izapidetzen		
	31. Errep. Plan Orokorren Legearen 3. aldaketa	Ekonomiaren Garapena eta Azp.	G. K. 2018/06/12		
	32. Natura Ondarearen Kontserbazioa	Ingurumena, Lurralde Plang. eta Etxebizitza	Izapidetzen		
	33. Ingurumen Administrazioa	Ingurumena, Lurralde Plang. eta Etxebizitza	Izapidetzen		

(*) Lege-proposamen gisa izapidetuak

(**) Ingurumenari, Klima Aldaketari eta Naturaren Kontserbazioari buruzko Legea deitutakoa hiru legetan zatitu da: Klima Aldaketaren Legea bera, Natura Ondarearen Kontserbazioaren Legea eta Ingurumen Administrazioaren Legea

2. eranskina. Plangintza Estrategikoaren egoera

XI. LEGEGINTZALDIA - Plan estrategikoak		Egoera	Onartzeko aurreikuspena
Lehendakaritza			
1	Nazioartekotzeko Estrategia, "Euskadi Basque Country" 2020	2018-01-23an onartua Indarrean 2020a arte	
2	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2020	2015-12-16an onartua Indarrean 2020a arte	
3	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020	2017-10-10ean onartua Indarrean 2020a arte	
4	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana 2018-2021	2018-06-19an onartua Indarrean 2021a arte	
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua			
5	Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2017-2020	2017-12-12an onartua Indarrean 2020a arte	
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak			
6	Industrializazio Plana 2017-2020	2017-07-18an onartua Indarrean 2020a arte	
Enplegua eta Gizarte Politikak			
7	Enplegurako Plan Estrategikoa 2017-2020	2017-11-28an onartua Indarrean 2020a arte	
8	Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2020	2015-12-01ean onartua Indarrean 2020a arte	
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza			
9	IV. Ingurumen Esparru Programa 2020	2014-12-02an onartua Indarrean 2020a arte	
Hezkuntza			
10	Lanbide Heziketako V. Euskal Plana 2018-2021	Izapidetzen	1. hiruhilekoa
11	IV. Unibertsitate Plana 2019-2022	Izapidetzen	1. hiruhilekoa
Osasuna			
12	Osasun Plana 2013-2020	2013-12-23an onartua Indarrean 2020a arte	
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa			
13	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020	2017-12-26an onartua Indarrean 2020a arte	
Kultura eta Hizkuntza Politika			
14	Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020	2017-12-19an onartua Indarrean 2020a arte	
Segurtasuna			
15	Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020	2014-07-15ean onartua Indarrean 2020a arte	

3. eranskina. Saisetako planak

2018AN INDARREAN DAUDEN SAILETAKO PLANAK	
Lehendakaritza	
1	Publizitate eta Komunikazio Instituzionalaren Urteko Plana 2018 (*)
2	Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Plana 2018-2021 (*)
3	Gogoraren Jarduera Plana 2017-2020
4	Kanpo Harremanetako Plana 2018-2020 (*)
Gobernantza	
5	Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plana
6	Administrazio Orokorren Enplegu Plana
Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	
7	Nekazaritza-sektoreari babes osoa emateko Plana 2014-2020 (Landa Garapenerako Programa)
8	Gazte Nekazarietzako Gaztenek Plana 2020
9	Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantza eta Akuikulturako Plana 2020
10	Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2017-2020
11	Sasoiko lana aintzat hartzeko Plan Integrala, 2017-2020 (*)
12	Euskadiko Erakundearteko Ekintzailatza Plana 2020
13	Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2018-2020 (*)
14	Euskadiko Agenda Digitala 2020
15	Euskadiko Energia Estrategia 2030 (3E 2030)
16	Garraio Iraunkorraren Gida Plana: Euskadi 2030
17	Mugikortasun Elektrokoaren Plan Integrala (*)
Enplegua eta Gizarte Politikak	
18	EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana 2018-2022 (*)
19	Gizarteratze Aktiboko IV. Euskal Plana 2017-2020 (*)
20	Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren V. Plana 2018-2020. (*)
21	Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia (*)
22	Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020
23	Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko Estrategia
24	Gazte Plana 2020 (*)
25	Etterik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia 2017-2020 (*)
26	Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2018-2020 (*)
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	
27	EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030
28	EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020
29	Plan Hidrologikoa 2015-2021
30	Klima Aldaketaren Aurkako EAEko Estrategia 2050. Klima 2050.
31	Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia 2030 (*)
32	Etxebizitza Plan Zuzentzailea 2018-2020 (*)
Ogasuna eta Ekonomia	
33	EAEko Estatistika Plana 2018-2021 (*)
Hezkuntza	
34	Hezkuntza Azpiegiturak Hobetzeko Plana 2014-2018
35	Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko Plana 2016-2020
Osasuna	
36	Adikzioen EAEko VII. Plana
37	Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020
38	Euskadiko Onkologia Plan Integrala 2018-2023 (*)
39	Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana 2016-2020
40	Ildo Estrategiko Soziosanitarioak
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	
41	Turismoaren Gida Plana 2017-2020
42	Kontsumoaren Gida Plana 2017-2020
Kultura eta Hizkuntza Politika	
43	Jarduera Fisikoaren Plan Zuzentzailea 2020 – MUGIMENT
44	Euskararen Erabilerrari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Plana 2018-2022 (*)
Segurtasuna	
45	Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plana 2015-2020
Lana eta Justizia	
46	Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalizaziorako Plan Orokorra 2011-2020
47	Gazte Justiziaren IV. Plana 2018
48	Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia 2015-2020
49	Justizia Administrazio Elektronikoa Sustatzeko Plana (*)

(*) 2018an onartutako sailetako planak

2019AN ONARTZEKOAK DIREN SAILETAKO PLANAK

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

1 Energia berriztagarriak sustatzeko plan espezifikoak*

Enplegua eta Gizarte Politikak

2 Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia 2020 (***) (2019ko 4. hiruhilekoa)

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

3 Etxebizitza Birgaitzen Laguntzeko Programa 2017-2020 (***) (2019ko 1. hiruhilekoa)

4 Kutsatutako Lurzoruak Babesteko Plana (***) (2019ko 2. hiruhilekoa)

